


ZAKILIXUT

© Olariagak



Kate motzean

♦ Marco Antonio Sainz de Acedo • MUSIKARIA

«Euskal Herria independentea izanen da»

► EGUNKARIAN ez ezik, irratigintzan ere aritzen naiz lanean. Nire lehen erreferentziak izan ziren Radio Requete de Navarran *Micrófono Infantil* egiten zuen On Goyo, eta Eguzki Irratian *Inmersión en la alcantarilla* egiten zuen Eskroto.

On Goyo eta biok ahai-deak gara: bere emaztea amaren lehengusina da. —Garai punki haietan, Espainiako

► Radio Nacionalen ere izan zuten zure hitz jarrioren berri.

Radio 3eko Caravana de hormigas saioan lehia-keta egin zuten. Parte hartu genuen, eta oso ongi pasatu.

► Erantzunak esan egiten zizkizutela esan didate.

Ez dakit konta daitekeen. Gu Iruñeko estudiantoetan geunden, eta, Madrilgoek ezer jakin gabe, irratiko hemengo langileek erantzunak esaten zizkiguten kas-koen bitartez. Irabazi genuen.

► Lasai. Segur aski, iruzu-

rra jada preskribituta dago. Iruzurra haiena izan zen. Ez ziguten iragarritako saria eman.

► Iruñeko manifestaziozalerik zaharrenek diote foru hiriburuan sekula izan diren protestaldirik dibertigarrienak izan zirela zuk, duela 15 bat urte, zure megafonoarekin animatu zenituenak.

Katakrak mugimenduaren garaiak ziren. Horrek guztiak gaur egungo gazte mugimenduaren oinarriak jarri zituela uste dut. Frankismoaren aurka arituri-ko borrokalari zaharren moldeak hautsi eta gauza berriak egiteko moduak sortu ziren. Garai hartako alkate sozialistari, Julian Bal-

Iruñea, 1965. Tijuana in Bluerekin, Eskroto punkia izan zen. Huajoloteekin, Gavilan nafar-mexen erregea. Euskal Herriko musika garaikidearen ezinbesteko erreferentzia, egun zapalgailu gidaria da, bai eta 8. urratseko euskara ikaslea ere.



«Txaloak jaso dituenak ezin du horiek gabe bizi»

duzi, argi utzi genion bera ez zela Tierno Galvan, eta gu ez ginela Madrilgo mugida.

► Ez zineten, ez. Nik ikusi nuen Tijuana in Blueren

lehen kontzertuan, taldeki-deok whisky Dyc botilaz beteriko kutxa hustu zenu-ten. Autodestruktibo samar- rak zineten.

Egun horren polit eta

osasuntsu egoteaz oso kontent nago, gai horri dagokionez kaskarin samarrak ginen eta. Ez ginen jabetu gertatzen zitzaigunaz, gertuko

jendea erori zen arte. Ni mugan ibili nintzen. Pena da, baina horren eraginez, genuen indar hori guztia kontrolik gabe galdu zen. Iruñean, udaberri labur eta zoroa izan zen.

► Nolanahi ere, agertokiak eragin omen dizu abstinentzia sindromerik gogorrena. Julio Iglesiasek esaten ohi duenez, inoiz publikoaren txaloak jaso dituenak gero ezin du horiek gabe bizi. Guztia ongi ateratzen denean, demasa da. Ni ez naiz nazioarteko musika izarra izan, baina horrelakoetan sentitu dudanak badu pareko-tasunik lizunkeria-sexualarekin-eta, orgasmoarekin eta.

► Agertokira itzuli ahal izateko, musika mexi- karra gasolindegietako apalategietatik Euskal Herri osoko kontzertuetara hedatzea lortu zenuen. Mexikarrak Euskal Herriko folklorearen

zati bat dira. Huajolote-ekin hasi nintzenean, ez nekien —amak ez zidan kontatu, nire zorakeriak ez bultzatze-arren—, baina nire aita ere herriz herri ibi- lia zen mexikarrak abesten: nolako enbo- rra, halako ezpala.

► Huajoloteak desagertu zi- ren, baina Tonin huajolote- ak aurrera egin du; Tonino Carotone da orain.

Grazia du, eta azal gogo- rra. Ez nuen uste Tiju- nak edo Huajoloteek egindakoa gaintutuko zuenik, baina lortu du. Pozten naiz, ikaragarri, besteak beste Huajolo- teen diskoen salmentak berpiztu dituelako.

► Eta zu, zapalgailuarekin, eraikuntzetan lanean.

Nazio eraikuntzan, aizu.

► Alor horretan baikor? Zentzu politikoan, bai. Garai latzak dira, baina itxaropena badut. Kos- tata, baina nazio inde- pendentea lortuko dugulakoan nago.

• Juan Kruz Lakasta •

Arriaga



GASTEIZEN: San Prudentzio, 7
Tel.: 945 14 45 01 - Faxa: 945 13 56 01
San Anton plaza, 7
Tel.: 945 26 90 33 - Faxa: 945 26 22 12
E-mail: Arriagan@jalgi.com

Urretxindorra



BILBON: Iparragirre, 26
Tel.: 94 424 02 28 / 94 424 43 96 - Faxa: 94 424 42 35
E-mail: Urretxindorra@jalgi.com

ORAIN DENAK
BATERA INTERNET-EN

megadenda

www.jalgi.com/megadenda

Mattin



DENDA
BAIONAN:
Saint-André plaza
Tel.: 05 59 59 35 14
Faxa: 05 59 25 72 06

Bilintx

DONOSTIAN: Fermin Calbeton, 21
Tel.: 943 42 09 30 - 943 42 00 80 / Faxa: 943 42 23 63
IRUNEN: Colon Pasealekua, 8 - Tel.: 943 63 17 26
TOLOSAN: Arostegieta - Tel.: 943 67 35 33
BERGARAN: Ibargairi, 14 - Tel.: 943 76 40 50
E-mail: Bilintx@jalgi.com

Xalbador

IRUÑEAN: Comedias, 14
Tel.: 948 22 41 67 / 948 22 99 81 - Faxa: 948 21 10 61
E-mail: Xalbador@jalgi.com

